

Lesarriko tunela berritzeko lanak aurrea doaz Bergaran

Lanegunetan, 07:00etatik 09: 00etara auto-ilara puntualak sor daitezke Gasteizerako noranzkoan.



Bergaran, Lesarri tunela osorik birgaitzeko lanak aurrera doaz. Horretarako Behobiara noranzko hodian pasabide bat prestatu da hormigoizko hesiekin eta horrela mantenduko da, 2024ko apirilera arte. Tarte horretan, bi norabideetako igarobide guztiak tunelaren hodiaren bi erreiak partekatuz egingo dira eta Gasteizerako noranzko tunela itxita egongo da berritzen den bitartean. Bidegi foru sozietateak 19.688.000 €+BEZa inbertituko du eta bi hodiak berritzeko epea 24 hilabetekoa izango da .

Auto-ilarak izateko arriskua 07: 00etatik 09: 00etara

Bi erreetik errei bakarrera igarotzeak auto-ilarak sor ditzake Gasteizerako noranzkoan, lanegunetan, 07:00etatik 09:00etara; izan ere, ordu-tarte horretan, 1.200 ibilgailu, batez beste, Bergarako, Oñatiko, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako edo Gasteizko industrialdeetako languneetara joaten dira. Eibar-Behobiarako noranzkoan 700 ibilgailu inguru ibiltzen dira.

Lan hauek erabat operatiboan den bidean sor ditzakeen eraginen jakitun da Bidegi eta indartu egin ditu neurri informatiboak, horiek minimizatzen. Horrela, obretako



gunera sartu aurretik, erabiltzaileek sor daitezkeen auto-ilareei buruz informazio eguneratua izango dute AP-1 eta AP-8etan eta autobideetako sarbideetan dauden mezularitza aldakorreko panelen bidez. Kasu horietan, eta alternatiba gisa, Eibarko AP-8ko irteera erabiltzea dago, eta GI-627 errepidetik jarraitu Bergara-Hegoaldeko sarreraraino, AP-1ean sartzeko berriro. Era berean, ahal den neurrian, lekualdaketen ordutegiak aldatzea gomendatzen da, puntako ordu horiek saihesteko.

Pasabidea prestatu aurretik, eta obrak ahalik eta segurtasun handienarekin egin ahal izateko, bai autobideko langileentzat, bai erabiltzaileentzat, kanpotik AP-1eko obra-gunera heltzeko sarbide zuzenak egin dira langileentzat. Gallaztegiko tuneletik irten bezain laster, plataforma bat ere eraiki da, ibilgailuak Lesarriko tunelean dagoen pasabiderantz bideratuko dituen erreiarekin. Desbideratze-tarte horretan abiadura orduko 60km-koa izango da, eta tunelaren barruan muga orduko 80km-koa. Abiadura radarraren bidez kontrolatuko da.

Berrikuntza integrala

Lesarriko tunela 2003ko abenduan jarri zen martxan. Azken urteotan, zenbait luizi txiki izan dira, batez ere ormetan, mendiguneko materialaren bilakaerari lotutako pitzaduretan. Hori dela eta, Bidegiko sail teknikoak berritze-lanak burutzea erabaki zuen.

Barruko instalazioen berrikuntza integrala da, eta tuneleko bi hodian sostengua eta estaldura indartuko dira. Hodiek 1.200 metroko luzera dute noranzko bakoitzean. Bi tunelak lotzen dituzten bost ebakuazio-galeriak ere berrituko dira. Galeria horietako lau pertsonak ebakutzeko dira, eta beste bat larrialdietarako ibilgailuetarako.

Egitura indartzeko lanen barruan sartzen dira horma pikoien bulonaketa sistematikoa eta hormigoizko edo gunitako proiektzioa, tunel osoan 25 cm-ko lodiera lortu arte. Lesarri iragazgaizteko, mintz iragazgaitz bat erabiliko da, lehenengo eta bigarren gunita-geruzen artean proiektatuko dena eta harekin kontaktuan solidotzen dena.

Berrikuntza teknikoaren zatian, luzetarako 20 haizagailuak eta galerietakoak berrituko dira, baita horien suebaki-uhateak ere. Argiztapenerako, egungo argien ordeztu LED teknologiako luminariak jarriko dira.

Bi fase

Lanek bi fase dituzte. Lehenengoan, 2023ko irailtik 2024ko apirilera bitartean, Gasteizerako norabideko hodia birgaituko da, itxi egingo da eta trafikoa desbideratuko da Behobiarako norabideko hodian by-pass bidez. Fase honetan, Ondartza zentroko trafikoaren jarraipen- eta kontrol-sistemak ere berrituko dira. Vitoria-Gasteizerako noranzkoan tunela berritzen amaitu ondoren, bi tunelak 2024ko maiatza eta iraila bitartean egongo dira zabalik, irteera- eta itzulera-eragiketekin udan sortzen den zirkulazioa errazteko.



Udako etenaren ondoren, 2024ko irailean, hodia berritzeko obren bigarren faseari ekingo zaio berriro, Behobiarako norabidean, eta trafikoa by-pasetik desbideratuko da, eta hodi berrituan jarriko da, Gasteizerako norabidean. Lanak 2025eko maiatzean amaituko dira.

Zarautz 2023/09/30

Continúan las obras de renovación del túnel de Lesarri en Bergara

Los días laborables los trabajos pueden generar retenciones puntuales en sentido Vitoria-Gasteiz entre las 07:00h y las 9:00h



Continúan las obras de rehabilitación integral del túnel de Lesarri en Bergara. Para ello se ha habilitado un desvío o by-pass en el tubo sentido Behobia con barreras de hormigón que se mantendrá hasta abril de 2024. En este tramo, los tránsitos en ambas direcciones se realizarán compartiendo los dos carriles del tubo en sentido Behobia mientras se renueva el túnel hacia Vitoria-Gasteiz. La sociedad foral Bidegi invertirá 19.688.000 €+ IVA en su ejecución y el plazo para renovar los dos tubos de Lesarri será de 24 meses.

Riesgo de retenciones entre las 07:00 y las 09:00h

El paso de dos carriles a un solo carril en este tramo puede generar retenciones en sentido Vitoria-Gasteiz los días de labor entre las 07:00h y las 09:00h dado que en esta franja horaria una media de 1.200 vehículos se dirigen a los puntos de trabajo de los polígonos industriales de Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza o Vitoria Gasteiz. En sentido Eibar-Behobia el tráfico es de unos 700 vehículos.

Bidegi, consciente de las afecciones que puede generar esta intervención al llevarse a cabo en una vía plenamente operativa ha reforzado las medidas informativas para minimizar las mismas. De este modo, antes de acceder al tramo en obras los usuarios



dispondrán de información actualizada de las posibles retenciones que se puedan generar por medio de los paneles de mensajería variable que se encuentran en la AP-1 y AP-8 y en los accesos de las autopistas. En esos casos y como alternativa está el utilizar la salida de AP-8 de Eibar y continuar por la carretera GI-627 hasta la entrada de Bergara- Sur para incorporarse a la AP-1. Asimismo, en la medida de lo posible, se recomienda modificar los horarios de los traslados para evitar estas horas punta.

Con anterioridad a la habilitación del by-pass y con el objetivo de que las obras transcurran con la mayor seguridad tanto para los operarios como para los usuarios de la autopista se han realizado unos accesos externos al punto de la obra de la AP-1 para los trabajadores. También se ha construido una plataforma nada más salir del túnel de Gallaztegi para ejecutar el corte de carril que dirigirá a los vehículos hacia el by-pass instalado en el túnel de Lesarri. En este tramo de desvío la velocidad será de 60kmh y dentro del túnel el límite será de 80kmh. La velocidad estará controlada por radar.

Renovación integral

El túnel de Lesarri entró en servicio en diciembre de 2003. A lo largo de los últimos años se han producido una serie de pequeñas caídas principalmente en los hastiales asociadas a la propia evolución del material del macizo por lo que el departamento técnico de Bidegi consideró sacar a ejecución su renovación.

Se trata de una renovación integral de las instalaciones interiores y del refuerzo del sostenimiento y revestimiento de los dos tubos del túnel que constan de una longitud de 1.200 m en cada sentido. También se renovarán las cinco galerías de evacuación que conectan ambos túneles. Cuatro de estas galerías están destinadas a la evacuación de personas y una para vehículos de emergencia.

Los trabajos de refuerzo estructural contemplan el bulonado sistemático de los hastiales y la proyección de hormigón o gunita hasta lograr un espesor de 25 cm a lo largo de todo el túnel. Para la impermeabilización de Lesarri se utilizará una membrana impermeabilizante que se proyectará entre la primera y segunda capa de gunita y que se solidifica en contacto con la misma.

En la parte de la renovación técnica, se renovarán los 20 ventiladores longitudinales y de las galerías, así como las compuertas cortafuegos de éstas. Para la iluminación se sustituirán las actuales luces por luminarias de tecnología LED.

Dos fases

Los trabajos comprenden dos fases. En esta primera que se llevará a cabo entre los meses de septiembre de 2023 y abril de 2024 se rehabilitará el tubo sentido Gasteiz con el cierre del mismo y el desvío del tráfico por medio del by-pass en el tubo sentido Behobia. En esta fase también se renovarán los sistemas de seguimiento y control de tráfico del centro de Ondartza. Una vez finalizada la renovación del túnel en sentido Vitoria-Gasteiz los dos



túneles permanecerán abiertos entre mayo y septiembre de 2024 para facilitar el tráfico que se genera durante el verano con las operaciones de salida y retorno.

Tras la interrupción estival, en septiembre de 2024, se retomará la segunda fase de las obras para renovar el tubo en dirección Behobia y los tráficos serán desviados por el by-pass que se colocará en el renovado tubo en sentido Gasteiz. Los trabajos finalizarán en mayo de 2025.

Zarautz 2023/09/30